Obra Plana

# Aurkibidea

1. Sarrera ..... 3
2. Exekuzio faseak ..... 3
2.1 Exekuzio fase bereziak ..... 3
2.2 Gantt-en diagrama ..... 4

# 1. Sarrera

Eranskin honen helburua Mungiako Udal Polikiroldegia den honen obra plana ikastea da, hau da egin beharreko lanen azterketa eta antolamendua burutzea.

Lehenik eta behin obraren antolakuntza egokia gauzatzekotan kontuan izan diren ezaugarri eta irizpide nagusiak adieraziko dira. Bestetik, garatu beharreko lan garrantzitsuenak eta hauen esperotako errendimendua. Bukatzeko gainera Gantt-en diagrama irudikatuko da.

Era berean, lanaldiak zortzi ordukoak (8h/egun) izango dira astean bost egunetan zehar (40h/aste). Klimatologiaren eragina ere kontuan izan behar da, bai prezipitazioengatik bai gehiegizko hotz eta beroen eraginez zenbait jarduera gauzatu ezin daitezkeelako egin. Horrela beraz, 0.9-ko koefiziente aplikatu zaio lanorduari ahalik eta errealena izan dadin.

Obraren gauzapenerako epea 11 hiletakoa izango da aipatutako diagraman ikus daitekeenez eta proiektatutako lanen segida logikoa erabiliz.

# 2. Exekuzio faseak

Proiektuaren memorian behar bezala azalduta datorrela suposatzen denez gero, txoten honetan laburpena egingo da bakarrik. Proiektatutako lanetan honako faseak aurreikusten dira:

- Aurretiko lanak.
- Lur mugimenduak.
- Zimentazioa.
- Saneamendua.
- Egitura.
- Estalkiak.
- Igeltserotza.
- Instalazioak.
- Isolamenduak.
- Estaldurak.
- Arotzeria.
- Beirak.
- Pintura.
- Urbanizatzea.
- Hondar-kudeaketa.
- Segurtasun eta osasuna.
- Kalitate kontrola.

## 2.1 Exekuzio fase bereziak

Exekuzio fase ezberdinen artean, hauen iraupenari dagokionez, badaude hiru aparte jo behar direnak; obraren exekuzio epe osoan zehar etengabe gauzatu behar baitira.

- *Kalitate kontrola:* Obraren exekuzioan kalitate kontrol egokia eramateak honen iraunkortasuna, exekuzio egokia, erabilgarritasuna eta erabiltzailearen segurtasuna bermatzen ditu. Horrela beraz, obran erabiliko diren elementu guztien zein exekuzio fase eta obra unitateen kontrola eramatea ezinbestekoa da Kalitate Kontrola eranskinean adierazi bezala. Era berean, behin obra bukatuta dagoenean ere honen kalitate ikuskapen bat egitea ere beharrezkoa da, eraikinaren ematea gauzatzen denean behar bezalako ezaugarri eta irizpideak izan eta bete ditzan.

- *Segurtasun eta osasuna:* Obraren exekuzio lanen ondorio zuzen eta zeharkakoen eraginengatik langile zein obraz kanpoko pertsonek inongo arazo edo istripurik jaso ez dezaten segurtasun eta osasun ikasketa exekuzio epe osoan zehar emango da ere. Hau segurtasun eta osasunari buruzko ikasketa eranskinean adierazi bezala gauzatuko da.

- *Hondakinen kudeaketa:* Obraren exekuzio egokia bermatzeko, bai eta hondar, lur eta material soberakinak ahalik eta ondoen tratatu edo birziklatzeko, hondakinen kudeaketa jarraitu bat garrantzitsua da. Hau da, obraren exekuzioan zehar hondakinen kudeaketa egokia eraman behar da, ahalik eta Hondakinen Kudeaketa eranskinak adierazten duen moduan.

## 2.2 Gantt-en diagrama

Jarraian Gantt-en diagrama erakusten da, obraren exekuzioaren epeak adierazten direlarik:

| Zbk. | | 1 | | 2 | | 3 | | 4 | | 5 | | 6 | | 7 | | 8 | | 9 | | 10 | | 11 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Obra jardueren programazioa | | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 |
| 1 | Lur egokitzapenak edo aurretiko lanak | x | x | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 2 | Lur mugimenduak | x | x | x | x | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 3 | Zimentazioa | x | x | x | x | x | x | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 4 | Saneamendua | x | x | x | x | x | x | | | | | x | x | | | | | | | | | | |
| 5 | Egitura | | | | | x | x | x | x | x | x | | | | | | | | | | | | |
| 6 | Estalkiak | | | | | | | | | x | x | | | | | | | | | | | | |
| 7 | Igeltserotza | | | | | | | | | | | x | x | x | x | | | | | | | | |
| 8 | Instalazioak | | | x | x | | | | | | | | | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x |
| 9 | Isolamenduak | | | | | | | | | | | x | x | x | x | | | | | | | | |
| 10 | Estaldurak | | | | | | | | | | | | | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x |
| 11 | Arotzeria | | | | | | | | | | | | | | | x | x | x | x | x | x | x | x |
| 12 | Beirak | | | | | | | | | | | | | | | | | x | x | x | x | | |
| 13 | Pintura | | | | | | | | | | | | | | | | | | | x | x | x | x |
| 14 | Urbanizatzea | | | | | | | | | | | | | | | | | | | x | x | x | x |
| 15 | Hondar-kudeaketa | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x |
| 16 | Segurtasun eta osasuna | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x |
| 17 | Kalitate kontrola | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

*1. Taula: Exekuzio planaren Gantt-en diagrama.*